

# **GAIA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETAREN HARIRA EGINDAKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEAN AURKEZTUTAKO EKARPENEI BURUZKO TXOSTENA**

## **EGITATEZKO AURREKARIAK**

1) Irailaren 25etik urriaren 10era bitartean, zergaren aldaketak eragiten diela uste duten herritarrek eta elkarte ordezkagarriek kontsulta publikoak egin eta iritziak helarazteko izapidea zabalik egon da.

Izapide horren bidez azaldu zen honako kontu hau jorratu nahi dela: zergaren tarifak berrikustea urte arteko KPIaren eguneraketa aurreikuspenen arabera, zergaren foru arauak zehazten duen gehieneko mugan dauden tarifak izan ezik.

2) Bi ekarpen aurkeztu dira, honako eduki honekin:

1.- MT.U.L.

*<<Ez ezazue zerga igo, nahikoa eta gehiago diru biltzen duzue. Arazoa da diru hori txarto erabiltzen duzuela, esaterako, edukiontziekin egin duzuen bezala, eta orain berriro ere aldatu egin behar dira.>>*

2.- J.S.P.

*<<Motorren zerga aldatzea. Ez da logikoa motor batek kotxe batek baino gehiago ordaintzea; izan ere, gutxiago kutsatzen du, hiriarekiko jasangarriagoa da, espazio publiko txikiagoa okupatzen du eta errepidea gutxiago higatzen du. 600 zentimetro kubikoko motor batek, ordea, auto normal batek baino gehiago ordaintzen du. Motorren erabilera sustatu egin beharko litzateke, eta ez zergak bidegabeki ezarri.>>*

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

1) Kontsulta publikoaren izapidea Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua xedatutakoa aplikatuz egin zen.

2) Txosten honen xedea da aurkeztutako ekarpenak jaso eta aztertzea, aldaketa proiektuan txertatu ahal izateko, hala badagokio.

3) Ekarpenei, alde batetik, zergaren tarifetako bat ere igo ez dadila proposatzen dute eta, bestetik, motorrei aplikatzen zaizkien zergak murriztea.

Udaleko Osoko Bilkurak onesten eta aldarazten ditu zergak arautzen dituzten Ordenantza Fiskalak, toki erakundeek zergen alorrean daukaten arauzko ahalmena betez —Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko

7/1985 Legearen 106.2. artikuluan aitortua— eta honako foru arau hauetan ezarritakoa garatuz: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa, eta Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa.

Ildo horretatik, komeni da honako hau gogoraraztea: **betiere foru arauaren** bidez arautuko dira karga tasaren finkapena eta zerga zorraren zenbatekoa zuzenean zehazten duten gainerako elementuen mugapena (Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 7. artikulua). Horrez gain, Tokiko Ogasunen Foru Arauak (7. artikulua) ezartzen du tokiko erakundeak egokitu egin behar direla tokiko zergak arautzen dituzten foru arauetara eta horiek garatzeko emandako xedapenetara. Gainera, ordenantza fiskalen bitartez, tokiko erakundeek araudi hori egokitu dezakete beren barruko funtzionamenduko eta antolaketako aipatutako araudira. **Egokitzapen hori ezin daiteke aipatutako araudiaren eduki materialaren aurka joan.** Azken finean, foru araudiak finkatutako marjinetara egokitu behar da udala zerga hori arautzeko orduan.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauak arautzen du.

### **Zergaren tarifak mantendu edo murrizteko aukerari dagokionez**

Ildo horretatik aipatu beharra dago Foru Arauaren 4.1 artikulua ezartzen duela exijitu beharreko tarifen koadroa:

#### a) Turismoak

<b>Potentzia eta ibilgailu mota</b>	<b>Kuota eurotan</b>
8 zaldi fiskal baino gutxiago	12,62
8 eta 11,99 zaldi fiskal artean	34,08
12 eta 13,99 zaldi fiskal artean	60,10
14 eta 15,99 zaldi fiskal artean	84,14
16 eta 19,99 zaldi fiskal artean	108,18
20 zaldi fiskaletik gora	132,22

#### b) Autobusak

<b>Potentzia eta ibilgailu mota</b>	<b>Kuota eurotan</b>
21 leku baino gutxiago	83,30
21 eta 50 leku artean	118,64

50 leku baino gehiago 148,30

c) Kamioiak

<b>Potentzia eta ibilgailu mota</b>	<b>Kuota eurotan</b>
Karga erabilgarria 1.000 kilotik behera	42,28
1.000 eta 2.999 kilo arteko karga erabilgarria	83,30
3.000 eta 9.999 kilo arteko karga erabilgarria	118,64
Karga erabilgarria 9.999 kilotik gora	148,30

d) Traktoreak

<b>4 Potentzia eta ibilgailu mota</b>	<b>Kuota eurotan</b>
16 zaldi fiskal baino gutxiago	17,67
16 eta 25 zaldi fiskal artean	27,77
25 zaldi fiskal baino gehiago	83,30

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramaten dituzten atoiak eta erdi-atoiak:

<b>Potentzia eta ibilgailu mota</b>	<b>Kuota eurotan</b>
Karga erabilgarria 1.000 kilotik behera	17,67
1.000 eta 2.999 kilo arteko karga erabilgarria	27,77
Karga erabilgarria 2.999 kilotik gora	83,30

f) Beste ibilgailu batzuk:

<b>Potentzia eta ibilgailu mota</b>	<b>Kuota eurotan</b>
Ziklomotorrak	4,42
125 cm <sup>3</sup> -rainoko motozikletak	4,42
125 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak, 250 cm <sup>3</sup> -raino	7,57
250 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak, 500 cm <sup>3</sup> -raino	15,15
500 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak, 1.000 cm <sup>3</sup> -raino	30,29
1.000 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak	60,58

Laugarren apartatuak honako hau xedatzen du:

*“Udalek artikulu honen 1. apartatuan finkatutako kuotak gehitu ahal izango dituzte haien gainean gehienez ere 3ko koefizientea aplikatuz.*

*Era berean, udalek koefiziente bat finkatu ahal izango dute artikulu honen 1 apartatuan jasotako tarifen taulan ageri den ibilgailu mota bakoitzerako, hain zuzen ere, ibilgailu mota bakoitzean finkatutako tarte bakoitzerako desberdina izan daitekeena, baina beti ere aurreko paragrafoan finkatutako gehienezko muga inoiz ere gainditu gabe”.*

Ondorioz, marjina horien barruan, Udaleko Osoko Bilkurak ahalmena dauka erabakitzen dituen tarifak ezartzeko.

Egin diren ekarpenak aztertuta, adierazten da aldaketa horiek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan sartzea Osoko Bilkurari dagozkion eskumenen baitan dagoela eta, beraz, aukera-erabaki bat dela.